

Gazteek bizitzari nola aurre egiten dioten azaltzen dute Ereinen azken lau argitalpenek

Haurrek arazoei aurre egiteko duten jarreraz, ama-alaba batzuen arteko harreman zailaz, hamasei urte inguruko gaztetxoek zalantzez eta mitoz eta historiaz dihardute Ereinen azken argitalpenek.

Maddalen LARRINAGA | DONOSTIA

Erein argitaletxeak gazte literatura saileko lau eleberririk argitaratu ditu: "Hi haiz hi, pirata!", "Errepidea", "Azeri noblea" eta "Eneko Padurakoa". Desberdinak dira guztiak, gai anitzekoak, baina guztiak ere egungo gazteek mundua nola ikusten duten azaltzen dute.

Alde batetik, Jose Angel Lopetegik, marrazkigintza munduan eskarmentu handia duenak, "Hi haiz hi, pirata!" argitaratu du. Bertan, Guillermo Bandera Beltz "Pirata" k eta bere lagunek eguneroko ezbeharrei jarrera baikorrez aurre egingo diete. Hala, etxean, ikastetxean eta auzoko bizipenak kontatzen ditu. Asmo pedagogikoz egina dago nobelaxoa, baina batez ere, umore dosi handiarekin.

Bestetik, Jose Luis Urrutia lan bakarra egin arren, bi argitalpen ditu. Izan ere, "Eneko Padurakoa" gaztelaniaz eta euskaraz argitaratu du Ereinek. Bertan, Padurako borrokaren inguruan sortutako kondaira eta benetako historia uztartu ditu egileak, Eneko gazte kontakizunaren gidari jarrita. Gertatukoaren ikusle eta protagonista da aldi berean. Liburu honen xedea ez da historia irakaspenera ematea, ordea, gure iraganaren zatitxo txiki bat erakustea baizik.


Fernando Morillok, bestalde, "Azeri noblea" eleberria aurkez-

POESIA ETA NOBELA

Miren Agur Meabek poesia munduan duen eskarmentua kontuan hartuta, ez da harriztekoa gazteentzako eleberririk honetan errima erabili izana. Horrez gain, beste bi nobedade ere aurkeztu ditu Meabek.

tu zuen atzo. Honakoak hamasei urteko Onintzaren gorabeherak ditu ardatz. Onintzak bizitzan bere txoko txikia izan arren, aldaketa bat nahi duela konturatuko da eta hor izango ditu komeriak, artzain ero batengana egindako bisita dela eta. Gainera, Agustin eta Iker mutil gazteak agertuko zaizkio. Bata, «indartsua eta nahasgarria», eta bestea, «xelebrea eta txikitako amodio galdua». Onintzari ordura arte zituen zalantzak areagotuko zaizkio orduan. Elkarrizketaz jositako lan honek, gizakiek elkarren artean komunikatzeko dituzten zailtasunak jorratzen ditu, izan ere, egilearen esanetan, «inoiz baino komunikatuago gaude gaur egun, baina inoiz baino bakar-tiago bihurtzen ari gara». Hala ere, umorea «barra-barra» erabili du lan honetan idazleak.

Azkenik, Miren Agur Meabek ez dakarkigu istorio gozorik oraingoan. Ama-alaben arteko erlazio zailari buruz hitz egiten du "Errepidea" n. Sinbolismoz eta ezkutuko traumez betea, etorkinak diren eta diru-zailtasunak dituzten ama-alaba batzuen arteko harremana da kontakizunaren muina. Hamabi ataletan banatu du Meabek kontakizuna eta, orokorrean, narrazailea alaba den arren, istorio bost txoriek ere lan horretan lagunduko diote; nobelako elementu guztiak dute ezkutuko esanahia eta.



J. M. Lopetegui «Txiliku», atzo, Donostian. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

Laminak, Tartalo eta Basajaun haurrengana hurbildu ditu «Txiliku»-k

GARA | DONOSTIA

Txilikuren hitzetan, «mitologiak eta kulturak lotura zuzena dute eta herri baten nortasuna azal dezake». Hori dela eta, euskal mitologia haurrengana hurbildu nahi izan du argitaratu duen azken lan honetan: "Euskal mitologiako kondairak haurrentzat". Elkarrek argitaratuta, liburu bakarrean edota alea erosteko aukera dago: "Arratsalde bat Marirekin", "Kontuz gizakiekin" eta "Arraioak".

Titulu bakoitzaren hasieran kondaira horietan parte hartzen duten pertsonaia mitologiko bakoitzari buruzko azalpen txiki bat egin du egileak; hala nola, Mari, Sugar, Laminak, Basajaun, Iratxo eta galtxagorrien ingurukoak.

Txilikuk azaldu zuenez, lehen mitoa jendeak sinesten zituen ipuinak ziren, egun,

ordea, ez da hala gertatzen. Halere, "Txiliku" ren ustez, «jendeak sinesten ez dituen arren, interesgarria da horien berri izatea, egungo haurrek euskal mitologiari buruzko jakintza txikia eta oso orokorra baitaude».

Haurrentzako egindako proiektua denez, marrazkiek pisu handia dute bilduma honetan eta horien erantzule Jose Angel Lopetegik da.

Hala, egungo haurrek garai bateko mitologia ezagut dezaten egin du bilduma hau. Bertan, adibidez, bera haurra zenean amonari entzundako Tartaloren kondairan ez du inongo aldaketarik egin garai hartako bertsioa errespetatu nahian.

Guztira hamasei pertsonaia agertzen dira eta istorioan barrena Nerea eta Julen neba-arrebek gidatuko dute irakurlea pertsonaia mitologikoekin batera.

Alberdania publica la versión en castellano de la novela gráfica «Ihes ederra»

A. K. | DONOSTIA

"La Bella Huida" (Alberdania) es la traducción del euskara al castellano de la novela gráfica "Ihes ederra", creada por He- doi Etxarte (Iruñea, 1986) y Alain M. Urrutia (Bilbo, 1981), y que ha sido traducida ahora por sus propios autores.

"La Bella Huida" cuenta la historia de una pareja heterosexual que vive en la República Libre Vasca. Joanes Apolaza es fotógrafo y Olga Perls, maestra. La conquista amorosa y la territorial son

los ejes de esta historia. Los temas que conforman el libro son la colonización, las ataduras y la imposibilidad de liberarse en territorios, cuerpos y culturas. Para el choque entre realidad y ficción, emplea además el humor y la violencia intelectual.

Este fue el primer trabajo autodenominado novela gráfica en euskara. Según sus autores, es una obra multidisciplinar en la que, con trazo realista, se pretenden forjar puentes entre la ficción del libro y la realidad.



Fernando Morillo, Miren Agur Meabe eta Jose Luis Urrutia idazleak atzo, Donostian. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS